

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## IRAKIAR ANTIGOALEN MUGIKORTASUNA GOLKOKO GERRAN

Schoyen Bildumako aramear kaiku magikoak



Hegoa Ibazeta Villa

Artearen Historia eta Musika Saila 2021

Tutorea: Haizea Barcenilla García

## LABURPENA

1995ean Londreseko Schoyen Bildumak 654 aramear kaiku magiko bere esku zituela ezagutarazi zuen. Izan ere, artefaktu hauek urte horretan Londreseko College Unibertsitatean (UCL) gordailutu zituen Martin Schoyen bildumagileak. Kaiku horiek ezagutzen zen lehen aldia izan zen eta ez zuten aurkikuntza arkeologikoaren dokumentaziorik. Dena dela, nahiz eta kaikuen jatorria ezkutatua izan nabaria liteke antigoal horien etorburua Irak izatea.

XX. mendearen azken hamarkadetan Irakeko Errepublikaren agintean Baath partidua zegoen eta honek politika nazional indartsuak sustatu zituen ondorearen barrutian, antigoalak azpiegitura zein lege aldetik babestuz. Baina 1990ean Iraken hasitako Golkoko gerrak irakiar ondare kulturalaren legez kanpoko indusketa eta esportazio ugari eragin zituen. Batik bat, gerrak eta Nazio Batuen bahimenduek testuinguru zaugarria sortu zuten irakiar ondarearentzako. Berez Iraken ekonomia kolapsatu egin zen eta antigoalen arpilatze eta kontrabandoa nagusitu zen. Halatan, irakiar antigoalen mugikortasun internazionala Golkoko gerraostean finkatu zen.

Beraz, Schoyen Bildumako kaikuen inportazio data hurretikoena 1995. urtea izanik, ziurrena litzateke hauek Golkoko gerraren eraginez esportatuak izatea. Probabilitate honen arabera, Norwegian Broadcasting Corporation (NRK) telebista dokumentalak Londresen zeuden 654 kaikuen jatorri ilegala salatu zuen. Horregatik, aramear kaikuen jatorria eta mugikortasunaren historia ikertzeko, UCLk ikerketa batzorde bat abiatu zuen Martin Schoyen bildumagilearen onespenearekin. Ikerlanak ondorioztatu zuen probabilitateen arabera kaikuak Golkoko gerra bitarte edo ostean izango zirela klandestinoki induskatuak eta esportatuak, modu ilegalean hortaz.

Lan honen xedea, aramear kaiku magikoen kasutik abiatuta Irakeko ondorearen legez kanpoko mugikortasuna aztertzea da, indarrean zeuden lege nazional zein nazioartekoak aztertuz eta hauek uzten dituzten hutsuneak ikertuz.

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera, metodologia eta helburuak</b> .....	3-4
<b>1- Aramear kaiku magikoak: Irakiar antigoalen mugikortasuna</b> .....	5-11
1.1 - Schoyen Bildumako aramear kaiku magikoak .....	6-8
1.2 - Aramear kaiku magikoen izaera legala .....	8-11
<b>2- Irak baazista: ondarearen nazionalizazioa eta zaugarritasuna</b> .....	12-17
2.1. Irakeko estatuaren sorrera.....	12-13
2.2- Irakeko Errepublika eta Golkoko gerra.....	13-15
2.3- Bahimendu internazionalak: kaikuen arpilatzea eta kontrabandoa.....	15-17
<b>3- Aramear kaiku magikoen menpeko legedia Golkoko gerran</b> .....	18-24
3.1- Irakiar antigoalen lege nazionalak.....	18-21
3.2- Ondarearearen legedi internazionalak.....	22-24
<b>4- Ondorioak</b> .....	25
<b>Bibliografia eta bestelako iturriak</b> .....	26-30
1- Dokumentu instituzionalak eta legeak.....	26
2- Bibliografia.....	27-29
3- Webgrafia.....	29
4- Irudiak.....	29-30

## SARRERA, METODOLOGIA ETA HELBURUAK

Lanaren gai orokorra gerra testuinguruan sortzen den ondare kulturalaren legez kontrako mugikortasuna da. Gai hau aztertzeko kasu zehatz bat landuko da: Londreseko Schoyen izeneko bilduma pribatu batean dauden irakiar kaiku magikoen kasua, alegia. Antigoal hauek Iraketik kanpo daude eta ez dute jatorri arkeologikoaren dokumentaziorik. Lanaren bidez frogatu nahi dena da, probabilitatearen arabera kaiku horiek Golkoko gerraren eraginez izan zirela induskatuak eta esportatuak, ondoren Erresuma Batura inportatuz. Hau frogatu ostean, 90. hamarkadan emandako kaikuen mugikortasuna legez kanpokoak izango zirela zehaztuko da, garaiko marko legala aztertuz eta honekin alderaketa bat eginez.

Proiektua hiru atal nagusitan antolatzen da. Lehenengo atalean, Schoyen Bilduman dauden aramear kaikuen aurkezpena egingo da, Londreseko Schoyen Bildumak zein College Unibertsitateak jasotako kaikuen jabetza eta artefaktu hauen izaera legalaren teoria gainetik azalduz. Ondoren, bigarren puntuan, Irakeko testuinguru politikoa azalduko da, estatuaren sorreratik Baath alderdiaren agintaldiko Errepublikara arte, 2003ko amerikar okupazioaren aurreko urteak muga gisa hartuta. Hementxe landuko da Golkoko gerraren testuingurua eta kaiku magikoen indusketa eta esportazioaren probabilitatea. Azkenik, hirugarren atalean, kaikuek jasandako indusketa, esportazioa eta inportazioaren legeak aztertuko dira. Irakiar lege nazional eta komunitate internazionalaren legeen arabera, zehaztuko da teorian behintzat, jarduera hauek ilegalak izango liratekeela. Bukatzeko, landutakoaren ondorio batzuk jasoko dira.

Beraz, kaiku horien mugikortasuna gerraren ondorioz emandako ilegalitatea izan zela frogatzeko iturri zehatz batzuk landuko dira. Hasteko, aipamen berezi bat egin behar zaio Neil Brodie arkeologoari. Brodie, Erresuma Batuko Illicit Antiquities Research Centre izeneko akademia guneko koordinatzailea izanikoa<sup>1</sup>, antigoalen mugikortasun ilegalean aditua da eta gainera kasu zehatz honen ikerketa burutu zuen; hortaz lanean hainbatetan aipatuko da. Bestalde, Schoyen Bildumako kaiku magikoen jatorri eta mugikortasun historia hurbiletik jarraitzeko, UCLk bideratutako ikerketa batzordearen txostena erabiliko dugu. Ikerlan hau 2006an ebatzi zen eta hau sustatu zuten adituak David Freeman, Sally

---

<sup>1</sup> MILLER, A.: “Looting of Iraqi Art: Occupiers and Collectors Turn away Leisurely from the Disaster”, *Case Western Reserve Journal of International Law*, 37(1), 2005, 49-84 orr., 64 orr.

MacDonald eta Colin Renfrew izan ziren. Halere, UCL eta Schoyen Bildumak txostena ez argitaratzea erabaki zuten<sup>2</sup> baina WikiLeaks erakundearen bidez ofizialtasunetik kanpo izan zen ezagutarazia<sup>3</sup>. Orobat, garaiko irakiar lege nazional zein lege internazionalak aztertzea funtsezkoa izango da kaikuak Golkoko gerraren ondorioz induskatuak eta esportatuak izan zirela ondorioztatzeko eta baita ekintza hauek legez kontrakoak izan zirela frogatzeko. Alde batetik, 1974ko 120. Legeak eta 1975eko 164. Legeak aldatutako 1936ko 59. Antigoalen Legea aztertuko da. Bestetik, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 661. Ebazpena eta Erresuma Batuen Estatutu Tresnaren 1519. Ordena landuko dira. Azkenik *UNESCOren 1970eko Kultura Ondasunen Legez Kanpoko Inportazioa, Esportazioa eta Jabego Transferentzia Debekatzeko eta Saihesteko Konbentzioa* ere mahaigaineratuko da.

Dena dela, gaiaren zabaltasuna ikusita ez dira honek bildu ditzakeen argudio guztiak landuko. Lehenik eta behin, kaikuek ondare kultural bezala luketen galera sinbolikoa ez da aztertuko. Bestalde, Schoyen eta UCLren artean izandako kaikuen inguruko jabetza eztabaidak ez dira landuko. Azkenik, kaikuek beregain lituzkeen Erresuma Baturako inportazio legeen pintzelkada bat besterik ez da emango, izan ere, gai hau kaikuek jasandako aparteko auzibide bezala landu beharko litzateke. Hortaz, aramear kaikuen Irakera aberriratzearen aukera eta prozesua ez dira planteatuko.

---

<sup>2</sup> BALTER, M.: "University Suppresses Report on Provenance of Iraqi Antiquities", *Science*, 318(5850), 2007, 554-555 orr., 554 orr.

<sup>3</sup> THORPE, V. eta DOESER, J.: "UK Scholars Linked to 'Stolen' Bowls of Babylon". *Guardian*, 2009.11.08. in CAMPBELL, P.: "The Illicit Antiquities Trade as a Transnational Criminal Network: Characterizing and Anticipating Trafficking of Cultural Heritage", *International Cultural Property Society*, 20, 2013, 113-153 orr., 123 orr.

## 1. Aramear kaiku magikoak: Irakiar antigoalen mugikortasuna

Aramear kaiku magikoek gaur egun Irak izenaz ezagutzen dugun lurralde muga dute jatorri ziurrenezat, zehazki Persiar Inperioko Babilonia. Kaikuak Mesopotamia sasandarrean bizi ziren komunitate ezberdinek egin zituzten K.o. V. eta VIII. mende bitarteetan<sup>4</sup>.

Kaiku magikoak zeramikazko esfera forma duten ontziak dira, oinarri laua dute eta ez daukate heldulekurik. Barrualdean zein kanpoan inskripzio edo figura grabatuak izaten dituzte eta hauek esferaren erditik koordinatzen dira. Testua ia beti aramear jatorrikoa dute, izan ere bai aramear judua, aramear mandeoa zein aramear siriarra ageri dira kaikuetan<sup>5</sup>. Irudi konbinaketak espiritu ilunak aldentzeko sorginkeriak dira<sup>6</sup> eta normalean banaka eta buruz behera lurperatzen ziren etxebizitzaren harreretan bere funtzioa bete zezaten<sup>7</sup>.



MS 2033/196  
Incantation bowls quoting the Hebrew Bible. Near East, 5th-6th c.



MS 2033/198  
Incantations against demons. Near East, 5th-6th c.



MS 1928/19  
Zoroastrian incantations against Angra Mainu. Near East, 5th-7th c.

<sup>4</sup> BRODIE, N.: "Aramaic Incantation Bowls in War and in Peace", in CHARNEY, N (ed): *The Journal of Art Crime*, 11, 2014, 9-14 orr., 10 orr.

<sup>5</sup> FREEMAN, D.J.C., MACDONALD, S. eta RENFREW, C.: *An Inquiry into the Provenance of 654 Aramaic Incantation Bowls Delivered into the Possession of UCL by, or on the Instruction of, Mr Martin Schøyen*. House of Lords Library, London, United Kingdom, 2006, 5 orr.

<sup>6</sup> BRODIE, N.: "Scholarship and insurgency? The study and trade of Iraqi antiquities", in PROT. L.: *Illicit Traffic of Cultural Objects: Law, Ethics, and the Realities*. Perth: University of Western Australia, An Institute of Advanced Studies Workshop, 2011. Berreskuratua: <https://traffickingculture.org/publications/brodie-neil-2011-scholarship-and-insurgency-the-study-and-trade-of-iraqi-antiquities-in-illicit-traffic-of-cultural-objects-law-ethics-and-the-realities-an-institute-of-advanced-studies-works/> (2021.06.04ean kontsultatua)

<sup>7</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia.: op. cit. 5 orr.

## 1.1. Schoyen Bildumako aramear kaiku magikoak

Gaur egun aramear kaiku batzuk oraindik induskatu gabe izango dira irakiar lurrazpian, baina beste batzuen aurkikuntzak argitaratuta daude. Neil Brodieren arabera, 1990a baino lehenago, munduan zehar 1000 kaiku inguru ezagutzen ziren eta hauek Irakeko zein munduko museo eta bildumetan zeuden<sup>8</sup>. Baina azpimarratzen du 90. hamarkadatik aurrera, bat-batean halako milaka kaiku, antigoalen merkatu internazionalan agertzen hasi zirela eta ziurrena litzatekeela Golkoko gerraostean ilegalki induskatu eta esportatutakoak izatea<sup>9</sup>.

Denbora tarte horretan merkaturatuak izan ziren kaiku batzuk, Martin Schoyen jaunaren Londreseko bilduma pribatura arte heldu ziren. Gutxienez, 1995eko irailean jada Schoyen bildumak 654 aramear kaiku zituen jabegoan, orduantxe utzi baitzituen Londreseko College Unibertsitateko (UCL) Hebrear eta Juduen Ikasketen Sailean<sup>10</sup>. Artefaktu hauen ikerketa eta katalogazioa beraz UCLeko Shaul Shaked eta Mark Geller adituek bideratu zuten<sup>11</sup>. Arazoa da 654 kaikuak ezagutarazi ziren lehen aldian Iraketik kanpo zeudela eta ez zutela hauen aurkikuntza arkeologikoa ezagunarazten zuen agiririk. Izan ere, prozedentzia ezak Iraketik Erresuma Baturako mugikortasunaren historia desagertarazten du. Beraz, arestiko Golkoko gerra eta informazio falta kontuan izanik, susmagarria litzateke kaikuen indusketa eta mugikortasun internazionala legez kanpokoak izatea.

Zalantzazko egoera honen aurrean, 2004ko irailean Norwegian Broadcasting Corporation (NRK) telebista dokumentalak<sup>12</sup> Schoyen eta UCLren esku zeuden 654 kaikuak ilegalki induskatuak eta esportatuak izan zirela argudiatu zuen<sup>13</sup>. Halatan, norvegiar telebistak eginiko salaketaren eraginez, 2005eko otsailean UCL unibertsitateak ikerketa batzorde independente bat gauzatu zuen bere gordailuan zituen Schoyen Bildumako kaikuen jatorria aztertzeko<sup>14</sup>. David Freeman, Colin Renfrew eta Sally MacDonald izan ziren batzordearen buruak<sup>15</sup>.

---

<sup>8</sup> BRODIE, N. 2011. op. cit.

<sup>9</sup> BRODIE, N. 2014. op. cit. 10 orr.

<sup>10</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 2 orr.

<sup>11</sup> BALTER, M. op. cit. 554 orr.

<sup>12</sup> Telebista dokumentalak *Skriftsamleren* zeukan izena eta honen bigarren atalean hitz egiten zen Schoyen bildumako kaikuez. Dokumentalean artefaktuak *Magiske Krukkene* izenez ezagutarazi ziren, kaiku magikoak norvegiaraz. in WALTER TUBB, K.: "Extreme or Commonplace: The Collecting of Unprovenanced Antiquities", in WERE, G. (ed.) eta KING, J. C. H. (ed.): *Extreme Collecting: [Challenging Practices for 21st Century Museums]*. New York, Berghahn Books, 2012, 57-74 orr., 65 orr.

<sup>13</sup> BRODIE, N. 2014. op. cit. 10 orr.

<sup>14</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 2 orr.

<sup>15</sup> BALTER, M. op. cit. 555 orr.

Kaiku hauen jatorria ilegala zen ala ez aztertzeke, lehen prozesua kaiku hauen jatorri arkeologikoa finkatzea izan zen. Ikerlanak aramear kaikuak “fenomeno babilonikoak” zirela ondorioztatu zuen, halako kaikuak Irakeko aztarnategietan bakarrik aurkitu izan direlako eta ez direlako Irakeko aldemeneko estatuetan aurkitutakorik ezagutzen<sup>16</sup>. Honenbestez, ziurrena da aramear kaiku magiko ororen jatorri bakarra gaur egungo Irakeko estatua izatea. Hortaz, Schoyen Bildumaren kaiku magikoak irakiarrak lirateke.

Aitzitik, Martin Schoyenek zein Londreseko Unibertsitateak edozein legez kanpokotasunaren inguruan ezjakin zirela erantzun zuten. Schoyenek argudiatu zuen beregain zituen 654 kaikuak jada 1960. urtetik aurrera Iraketik kanpo zeudela Jordaniako Amman hiriburuko Ghassan Rihaniren bilduman<sup>17</sup>. Izan ere, Londreseko bildumaren arabera, aramear kaikuak 1988an jordaniar autoritateek emandako lizentziaren onespenerekin izan ziren esportatuak Jordaniatik Erresuma Batura<sup>18</sup>. Hau da, Schoyenen hitzetan kaikuen aurretiazko jabea Rihani jordaniar bildumagilea izango litzateke eta antza denez objektu hauen Jordaniatik Londreserako transferentzia legearen barnean eginga izango zen. Baina Rihani jauna 2001ean hil zen eta ezin izan zen bere testigantza jaso batzordearen ikerketarako. Dena den, UCLko batzorde kideek ez zuten sinesgarritzat hartu Jordania eta Erresuma Batuen arteko kaikuen salerosketa, Schoyenek salerospen dokumentazio jordaniarra mahaigaineratu zuen arren, trukea ezin izan baitzen frogatua izan<sup>19</sup>. Ziurrena da Londreseko bildumak aurkezturiko kaikuen jabetza aldatetaren kontratuak faltsuak izatea.

Honenbestez, kontuan izanda kaiku hauen lehen argitalpen data 1995a dela, ziurrenik urte hauen inguruan izango ziren inportatuak Erresuma Batura, eta ez 1988an. Gogoan izanik gainera Irakeko Golkoko gerrak aurreratutako irakiar ondarearen zaurgarritasuna, probablena da 654 artefaktu hauen indusketa eta mugikortasunaren jatorria Golkoko gerraostea izatea. Izan ere, ikerketa batzordeak “probabilitatearen arabera kaikuak 1990eko abuztuaren 6a ondoren lekualdatuak izan zirela” ondorioztatu zuen<sup>20</sup>. Orobat, nahiz eta ezin izan zen konfirmatua izan Schoyen Bildumako kaiku magikoak Jordaniako bilduma pribatu batean egon zirela, litekeena izango litzateke kaikuak Londresera iritsi baino lehenago bai pasatu izana ezkutuan Jordaniatik.

---

<sup>16</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 6 orr.

<sup>17</sup> BRODIE, N. 2011. op. cit.

<sup>18</sup> THE SCHOYEN COLLECTION.: “Correction: media innuendo concerning alleged ‘looted’ provenance of incantation bowls”. The Schoyen Collection, News, Media Correction, 2007.10.14. <https://www.schoyencollection.com/news-items/bowls-not-looted-provenance> (2021.05.30ean kontsultatua).

<sup>19</sup> BALTER, M. op. cit. 555 orr.

<sup>20</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 39 orr.



Gaur egun, nahiz eta ikerketak aditzera eraman kaikuen indusketa eta esportazioa legez kanpokoak izango zirela, oraindik ez da aramear kaiku hauen Irakerako aberriraterik ezagutzen. Hartara, 654 aramear kaiku magikoek Schoyen Bilduman jarraitzen dute eta bildumak berak artefaktuen Irakeko jabetza eta jatorri ilegala argi ukatzen du<sup>21</sup>.

## 1.2. Aramear kaiku magikoen izaera legala

Aramear kaiku magikoak ondasun eta aberastasun kulturala dira, bai nazionala zein internazionala. Artefaktuek izaera juridikoa dute eta hau osatzen dutenak jatorrizko estatua eta komunitate internazionala dira. Orduan, kaikuekin zerikusia duten ekintzak legaltasunaren arabera neurtu daitezke. Hurrengo ataletan legaltasun horren ezaugarriak aztertuko ditugu, pausuz pausu, kaikuen mugikortasunaren legaltasuna apurtzeko jokoerak non eman diren identifikatzeko.

Irakiar kaikuak antigoal mugigarriak dira, beraz erraz eramangarriak dira leku batetik bestera. Bada, bi milurteko antzinakotasuna dute eta irakiar lurpean kontserbatu izan dira. Hainbestez, artefaktuen egoera honetatik abiatuta, Schoyen Bildumako kaikuek bi prozesu nagusi jasan dituzte, indusketa eta mugikortasuna. Bi jarduera hauek izaera eta erantzukizun legalak dituzte antigoalak legearen menpean daudelako. Hortaz, kaiku magikoek Irak lurraldea badute jatorritzat, lehenik eta behin ondarearen jabetza zehazten duten estatu mailako lege nazionalak izango ditu beregain. Honen arabera, geroago sakonduko den moduan, kaikuen jabea Irakeko gobernu litzateke.

Ondoren, behin kaiku hauek Iraketik irteterakoan, aktibitateen zilegitasuna definitzen dutenak legedi internazionalak ere badira. Halatan, Schoyen Bildumako kaikuek jasandako egoerak definigarriak dira Irakeko antigoalen lege nazional eta nazioarteko zein Erresuma Batuen legeen arabera. Beraz, antigoalen indusketa eta esportazio ekintzetan delitua egon badagoela baieztatzeko, aktibitate hauek ilegaltzat hartzen dituen legeak izan behar ditu beregain. Irakeko Golkoko gerraren testuinguruan kaikuen jardueren zilegitasun eza baieztatzen dituzten legeak oso argia dira. Honenbestez aramear kaikuek izandako mugikortasuna, arpilatzea eta kontrabandua izango lirateke.

---

<sup>21</sup> THE SCHOYEN COLLECTION. op. cit.

Kontuan hartzeko funtsezko elementu bat zera da, zantzu guztien arabera, Schoyen Bildumako kaikuak egoera oso berezi batean izan zirela induskatuak eta esportatuak. Golkoko gerrak barne gatazka militar eta ekonomikoa sortu zuen, berez Irakek jasandako presio internazionalak ondarearen kalteberetasuna bultzatu zuen. Ziurrena litzateke kaiku hauek garai honetan lekualdatuak izana, ezegonkortasun politikoetan aktibitate ilegal ugari ematen baitira. Izan ere, urte garaikideetako gerraoste ugarietan ondarearen arpilatzeak sustatzen dituzten baldintzak eman izan ohi dira<sup>22</sup>. Arpilatzea, modu ilegal batean, oraindik ezagutzen ez diren artefaktuak eskuratzea da, gehienbat oraindik lurrazpian daudelako, hortaz dokumentatu gabe<sup>23</sup>. Lapurretaren delitua alderantziz, jabetza eta jatorri zehatza duten artefaktuen legez kanpoko eskuratzea da<sup>24</sup>. Gure 654 kaikuen kasuan, kontuan izanik hauek lurperatuak izaten zirela eta ez daukatela jatorriaren dokumentaziorik aditzera ematen digu aski seguru arpilatuak izan zirela. Hau da, ez litzateke lapurreta izango, Schoyen Bildumara heldu baino lehenago ez zirelako argitaratuak izan.

Behin kaikuak induskatuak direnean mugituak izan daitezke, bai estatu barnean zein kanpoan. Artefaktuak jatorrizko lurraldetik beste batetara irtetzen direnean mugimendu transnazional ez hitz egin dezakegu. Termino hau bereziki esanguratsua da lan honetarako. Ondarea hortaz esportatua denean eta beste nazio batean sartzen denean internazionalki inportatua da. Mugimendu hauetan antigoalen merkatu internazionalak parte hartzen du.

Jakina, mugimendu internazional hauetan parte hartzen duten lurralde ezberdinek ezaugarri ekonomiko, politiko eta legal desberdinak izaten dituzte. Iraken kasuan adibidez, argi ikusiko dugu jasan zituen arpilatzeek zerikusitu zuzena izan zutela bere “estatus soziopolitikoarekin”<sup>25</sup>. Izan ere, mugimendu transnazional hauetan eskuhartzen duten estatuak ondasun kultural maila zein merkatu kategoria ezberdinetan banatzen dira. Raisa E. Patron-en arabera alde batetik, jatorrizko nazio -“source nation”- izenaz definitzen diren estatuak daude<sup>26</sup>. Kasu honetan Irak hauetariko bat izango zelarik. Patronek azpimarratzen du, jatorrizko nazio hauek

---

<sup>22</sup> ATWOOD, R.: “Day of the Vulture: Why the Looting of Iraq’s Ancient Sites Shouldn’t Have Surprised Anyone -Least of All the Pentagon”, *Mother Jones*, 2003.09/10. in PATRON, R.: “The looting of iraqi archaeological sites: Global implications and support for an international approach to regulating the antiquities market”, *The George Washington International Law Review*, 40, 2008, 465-496 orr., 474 orr.

<sup>23</sup> TIJHUIS, A. J. G.: *Transnational crime and the interface between legal and illegal actors. The case of the illicit art and antiquities trade*. Universiteit Leiden, Wolf Legal Publishers, 2006, 132 orr. Testua online: <https://scholarlypublications.universiteitleiden.nl/handle/1887/4551> (2021.05.31an kontsultatua)

<sup>24</sup> Ibid.

<sup>25</sup> BORKE, K.: “Searching for a Solution: An Analysis of the Legislative Response to the Iraqi Antiquities Crisis of 2003”, *DePaul Journal of Art, Technology & Intellectual Property Law*, 13(2), 2003, 381-452 orr. in PATRON, R. op. cit. 473 orr.

<sup>26</sup> BORODKIN, L. J.: “The Economics of Antiquities Looting and a Proposed Legal Alternative”, *Columbia Law Review*, 95(2), 1995, 377-417 orr. in Ibid. op. cit. 471-472 orr.

ondasun arkeologikoetan oso aberatsak direla eta merkatu internazionala hornitzen dutela. Gainera, Irakek bezala batik bat jatorrizko nazioek jabetza nazionalako ondasun legeak izaten dituztela nabarmentzen du<sup>27</sup>. Bestaldetik, Patronentzat merkatu nazioak -“market nation”- daude kontrajarritasunean<sup>28</sup>. Bere hitzetan, hauek antigoalen merkatu boteretsua dute eta artefaktuen eskaera eta salerosketa sustatzen dute<sup>29</sup>. Hortaz, gure kasuan Erresuma Batua merkatu nazioa da.

Baina bada kontuan hartzeko beste aldagai bat: antigoalen legez kanpoko mugikortasun internazionalaren kasuan, ia beti beste hirugarren nazio batek parte hartzen du. Izan ere, artefaktuak jatorrizko naziotik merkatu naziora heldu baino lehenago, orokorrean trantsitu estatu batzuetatik igarotzen dira. Aipaturiko hirugarren estatu honi trantsitu nazioa -“transit country”- deritza<sup>30</sup>. Aramear kaikuen trantsitu nazioa Jordania izango litzateke. Horrela, nahiz eta 654 kaikuak ez jakin ziurtasunez Jordaniako bildumagile baten eskuetatik pasa ote ziren, litekeena litzateke behintzat Jordanian izana.

Honenbestez, legez kanpoko mugikortasun internazional hau, gutxienez hiru jabetza eta transakzio maila ezberdinetan egituratzen da. Antigoalak beraz, internazionalki mugiaraziak direnean errealitate legal eta politiko ezberdinetatik igarotzen dira. Izan ere, jatorri ilegala duten antigoalen mugikortasunaren testuinguruan, trantsitu nazioen jomuga antigoalen ezkutuko garraioa eta izaera ilegalaen zuriketa sustatzea izaten da.

Behin termino hauek azalduta, kaiku magikoek jasandako mugikortasun transnazionalak legalak edo ilegalak izan baziren zehaztu behar da. Gure lanari dagokionez, bai lege nazional zein internazionalak kaiku magikoen esportazioa debekatu zuten. Horrenbestez, Schoyen Bildumako kaikuen jabetza teoriar irakiar estatuarena izango litzateke eta hauek pairatutako esportazioak ilegalak liratezke, ondorioz kontrabanduzko aktibitateak. Baina hemen kontraesan bat agertu zen, ordea, komunitate internazionalak irakiar antigoalen legez kanpoko trafikoa debekatu zuen arren, beste aldetik merkatu nazioaren interes propiorako lege eta jarduerak eraman zituen aurrera, kaikuek jasandako ekintzen ilegalitatea zirgortzea eta konpontzea oztopatuz.

---

<sup>27</sup> WILLIS, J. E.: “Looting in Ancient Mesopotamia: A Legislative Scheme for the Protection of Iraq’s Cultural Heritage”, *Georgia Journal of International and Comparative Law*, 34, 2005, 235-40 orr. in Ibid. op. cit. 482 orr.

<sup>28</sup> BORODKIN, L. J. op. cit. in Ibid. op. cit. 470 orr.

<sup>29</sup> Ibid.

<sup>30</sup> MERRYMAN, J. H.: “Two Ways of Thinking About Cultural Property”, *The American Journal of International Law*, 80(4), 1986, 831-853 orr. in CAMPBELL, P.: op. cit. 114-115 orr.

Lan honetan, ikerlariak egindako ikerketetan oinarrituta, Schoyen Bildumako kaiken indusketa eta esportazioa ilegalak izan zirela hartuko dugu abiapuntutzat. Baina litekeena da kaiken dokumentazio falta eta estatu mailako transakzio ezberdinen ondorioz aktibitate hauen izaera ilegala zurituz joan izana. Honenbestez, gaur egunean kaiku horiek oraindik Schoyen Bildumaren parte izateak aditzera eramaten digu hutsune legalak ugariak izan daitezkeela, kaiku magikoak antigoalen merkatu beltzaren parte izanik.

## 2. Iraak baazista: ondarearen nazionalizazioa eta zaurgarritasuna

Ikertzen ari garen objektuen ustiaketa eta esportazioa zein testuingurutan gertatu zen ulertzeko, Iraken historia aztertu behar da. Estatuaren sorreratik, Irak bere ondare kulturaren erregulazioaz arduratu izan da, jada Mesopotamiako Britainiar Agintalditik hain zuzen. Baina gobernu sistemak aldatzen joan ziren heinean ondarearen arautzea ere moldatzen joan zen. Irakeko independentziarekin, Haxemi Erresumak irakiar antigoalen legedi nagusia finkatu zuen, gero Irakeko Errepublikan Baath alderdiak oinarritzat hartu zuena. Berez, Irakiar ondare kulturalaren legediaren gailurra Baath partidupean sostengatu zen, baina nahiz eta errepublikaren garai hauetan antigoalak legalki inoiz baino babestuago izan, Irak baazistako urteetan sorturiko gatazka politiko eta militarren ondorioz, irakiar ondareak inoiz jasandako zaurgarritasun handiena pairatu zuen.

### 2.1. Irakeko estatuaren sorrera

Gaur egun ezagutzen dugun irakiar estatu modernoa XX. mendearen hasieran sortu zen. Otomandar Inperioa desagertzean, mendebaldeko potentziek Ekialde Hurbila elkar banatu zuten 1916ko Sykes-Picot Hitzarmenaren bitartez. Orduantxe Nazioen Ligak Irakeko lurralde-mugak ezarri zituen eta Mesopotamiako Britainiar Agintaldia bihurtu zen Irak. Bagdad, Basora eta Mosul izeneko hiru otomandar probintzien bateratzearen estrategiaren helburua Irakeko petrolio baliabideak kontrolatzea izan zen. Izan ere, Otomandar Inperioa erortzean, garaian otomandarrek kontrolatzen zuten Irakeko petrolio Iraq Petroleum Company (IPC) izeneko monopolio britaniarraren esku geratu zen. Bestalde, Irakeko ondare kulturala ere britaniarren menpean geratu zen eta horrela hasi zen irakiar ondarearen jarraibide legala. Halatan, britaniarren eskutik irakiar estatua bere ondasun kulturalaz arduratzen hasi zen eta arkeologiarako instituzio nazionalak sustatzen hasi ziren<sup>31</sup>. Gainera, gaur egun Irakeko Museo Nazional bezala ezagutzen duguna 1921ean sortu zen eta Gertrude Bell, ingeles arkeologoa, izendatu zuten museoaren zuzendari<sup>32</sup> eta baita Antigoalen

---

<sup>31</sup> MEHARRY, E.: "The Making of Iraq's Antiquity Law and the National Museum", in JACKSON, M. (ed.) eta PARKIN, A. (ed.): *The extraordinary Gertrude Bell*. City of Newcastle, Tyne Bridge Publishing, 2015, 29-31 orr., 29 orr.

<sup>32</sup> GAWRON, L.: *An Examination of the 2003 Looting of the Iraq National Museum: How the Protection of Iraq's Cultural Property was Overlooked*. Seton Hall University, Seton Hall Dissertations and Theses, 2010, 2 orr. Testua online: <https://scholarship.shu.edu/dissertations/515>

Departamentuko buru<sup>33</sup>. Behin Irakek 1932an independentzia lortu zuenean Irakeko Haxemi Erresuma ezarri zen. Hala ere, irakiar erreinua botere britaniarraren luzapena besterik ez zen izan eta aldi berean Irakeko erresumak ondare kulturalaren izaera legala sustatzen jarraitu zuen. Azkenik, 1958an Karim Kassem jeneralak estatu kolpe bat eman zuen eta Irakeko Haxemi Erreina deuseztatu zen Errepublikaren lehen pausuak hasiz. Honenbestez, ondorengo errepublikaren urteetan Irak estatu burujabe bihurtu zen, baina honek ekarritako areriotasun internazionalak ondasun kulturalaren galera masiboa sortarazi zion.

## 2.2. Irakeko Errepublika eta Golkoko gerra

Irakeko Errepublika 1968an egonkortu zen Baath partiduak boterea hartu zuenean. Partidu Arabiar Sozialista honen presidentea Hassan al Bakr izan zen hasiera batean eta Saddam Hussein lehendakariordea. Baina 1979an Saddam bilakatu zen Irakeko presidente, eta esan dezakegu XX. mendeko Irakeko figurarik garrantzitsuena ere izan zela.

Baath alderdiak lurraldeko baliabideak nazionalizatu zituztenean, Irak estatu subirano gisa esfera internazionalera eraman zuen. Berez, nahiz eta irakiar ondare kulturala jada jabetza nazionalekoa izan Mesopotamiako Britaniar Agintalditik, Baath partiduaren ekimenen bidez kategoria hori indartu egin zen bai legalki zein sinbolikoki. Hortaz, partidua Irakeko ondare kulturalaz baliatu zen bultzatzen zuen nazionalismo arabiar-irakiarra sostengatzeko<sup>34</sup>. Petrolioaren nazionalizazioa berriz, 1972an bukatu zen guztiz IPCek kontrolatzen zuen irakiar petrolio Iraq National Oil Company (INOC) izeneko elkartearen esku geratu zenean. Horrela, nazionalizazio prozesu hauek fruitu desberdinak eman zizkion irakiar estatuari: ondareak unitate identitarioa eman zion eta petrolioak botere ekonomiko eta militarra. Baina aldi berean, petrolioaren nazionalizazioagatik batik bat, Irakek etsai ugari irabazi zituen eta honek konfrontazio internazional ugari sorrarazi zizkion.

1980an Irak eta Iranen arteko gerra hasi zen eta 88. hamarkadan bukatu zen begibistako garailerik gabe. Gerra bukatu zenean Iraken ekonomia hondoratuta geratu zenez, Saddamek uste izan zuen Iranen galeran interesatuak izan ziren beste estatuek Irakeko gerrako zor

---

(2021.05.31an kontsultatua)

<sup>33</sup> DAVIS, T.: "From Babylon to Baghdad: Cultural Heritage and Constitutional Law in the Republic of Iraq", *International Journal of Cultural Property*, 21, 2014, 445-463 orr., 454 orr.

<sup>34</sup> ISAKHAN, B.: "Heritage Destruction and Spikes in Violence: The Case of Iraq", in KILA, J. D. (ed.) eta ZEIDLER, J. A. (ed.): *Cultural Heritage in the Crosshairs [Protecting Cultural Property during Conflict]*. Leiden eta Boston, BRILL, 2013, 219-247 orr., 221 orr.

ekonomikoa barkatu eta ekonomiaren berreraikitzean lagunduko zutela<sup>35</sup>. Gertatu zena guztiz kontrakoa izan zen, ordea. Estatu Batuen bezero erregimenek, Kuwait, Saudi Arabia eta Arabiar Emirerri Batuak petrolioaren produkzioa areagotu zuten eta honen prezioak jaitsi zituzten<sup>36</sup>. Azpijoko hau irakiar ekonomiarentzat eta bere botere militararentzat hondamendi larria izan zen<sup>37</sup>. Petrolioren gerra komertzial honi, Saddamek Kuwaiten inbaditzearekin erantzun zion. Orobat, Kuwaiten okupazioa gaitzesteko komunitate internazionalak Irakenganako jazarpen militar eta ekonomikoa abiatu zuen. Ondorioz, 90. hamakadako tentsio internazional hau Golkoko gerra bezala ezagutua da.

Irakeko indar militarrek 1990eko abuztuaren 2an sartu ziren Kuwaiten. Garairako, bai Irak zein Kuwait Nazio Batuen Erakundearen (lehen Nazioen Ligak) partaideak ziren. Nazio Batuen organo garrantzitsuenetariko bat Segurtasun Kontseilua izanik, honek estatu kideen lurraldeetako egonkortasuna eta segurtasuna bermatzekotan gatazka militarrei amaiera emateko ahalmena zeukan. Hortaz, Golkoko gerran Irak Nazio Batuen aginduen menpean zegoen. Horrela, Nazio Batuek Kuwaiten inbasioa kondenatu zuten eta gogor zigortu zuten Irak sorturiko bahimenduen bidez. Erakundeak sustaturiko ebazpen hauek Estatu Batuen eta Erresuma Batuen baietza izan zuten. Izan ere, bi estatu hauek Segurtasun Kontseiluaren betiereko boto-emaileak ziren<sup>38</sup> eta ez zuten ebazpenak erabakitzeke unean abstentziorik bideratu.

Halatan, Kuwaiten inbasioaren egun berdinean, Segurtasun Kontseiluak 660. Ebazpena jarri zuen indarrean, Irakeko indar militarrek Kuwaitetik aldentzea exijituz<sup>39</sup>. Ondoren, kontseiluak 661. Ebazpena atera zuen abuztuaren 6an, Iraken atzeratzea bortxatzeko. Azken ebazpen honek Irakeko jarduera komertzial eta militarerako blokeoa ezarri zuen<sup>40</sup>. Halere tropa irakiarrek ez ziren Kuwaitetik aldentu eta ondorioz, azaroaren 29an Nazio Batuen Erakundeak 678. Ebazpena atera zuen. Ordena honek, Irakek 660. Ebazpena betetzea eskatzen zuen eta horretarako 1991ko urtarrilaren 15a ezarri zen Irak Kuwaitetik aldentzeko epe muga bezala. Egun hau baino lehenago tropa irakiarrek ez baziren Kuwaitetik irteten Nazio Batuen Erakundearen parte ziren estatuek “beharrezko bitarteko guztiak” erabiltzeko

---

<sup>35</sup> GRUPO DE INVESTIGACIÓN EN ECONOMÍA POLÍTICA.: “Lo que hay tras la guerra de Irak: los datos básicos” in AA.BB: *La Segunda Guerra del Golfo: Irak, 2003*. Barcelona, Hacer Editorial, 2004, 29-63 orr., 45 orr.

<sup>36</sup> Ibid.

<sup>37</sup> Ibid.

<sup>38</sup> United Nations, *Charter of the United Nations*, October 24, 1945, art. 23.

<sup>39</sup> United Nations Security Council, *Security Council Resolution 660*, August 2, 1990, puntu 2.

<sup>40</sup> United Nations Security Council, *Security Council Resolution 661*, August 6, 1990, puntu 3.

onarpena izango zuten Irak Kuwaitetik botatzeko<sup>41</sup>. Saddamek ez zuenez bere tropen atzerkadaren agindurik eman, George Bush aitak, Estatu Batuetako presidentea, *Basamortuko Ekaitza* izeneko operazio militarri eman zion hasiera. Honela, urtarrilaren 17an Estatu Batuak eta bere aliatu britaniarrak, beste estatu batzuen artean, Irak bonbardeatzen hasi ziren<sup>42</sup>. Golkoko gerraren gorena eta Iraken etsipena izan zen hau. Azkenik otsailaren 26an Saddamek Kuwaitiko tropen ateratzea agindu zien soldadu irakiarrei<sup>43</sup> eta 27an su-etena dekretatu zen<sup>44</sup>.

Golkoko gerra amaitutzat eman zen baina Irak Nazio Batuen Erakundearen kontrolpean geratu zen bahimenduen luzapenen ondorioz. Bahimendu ekonomiko eta komertzial hauek amerikar okupaziora arte luzatzea, estatubatuarren estrategia izan zen Irakeko petrolio bereganatzeko<sup>45</sup>.

### 2.3. Bahimendu internazionalak: kaikuen arpilatzea eta kontrabandoa

Irakeko antigoalen arpilatze eta trafikoa antolatua 90. hamarkadan orokortu zen. Izan ere, irakiar antigoalen merkatu internazional eta globala Golkoko gerra ostean finkatu zen<sup>46</sup>.

Kontuan izan behar da baazismoak irakiar gobernu sendoa sortu zuela, eta legez ondareari izaera nazional gogorra ezarri ziola. Beraz, ondarearen zaurgarritasuna ez zen presidentzia baazistaren barne egitura faltagatik izan. Hau da, ondarearekin zerikusia zituzten delituen eragileak gatazka militarra eta gerra ekonomikoa izan ziren. Irak gerran sartu arte ondare kulturalaren egoera egonkorra izan zen. Gainera, 60 eta 80. hamarkadetarako, petrolioaren nazionalizazioak ekarritako diru sarrerei esker, Antigoalen Departamentua instituzio profesionala bilakatu zen<sup>47</sup> eta ondarearen arpilatze eta salerosketa ilegalak ia ez ziren existitu<sup>48</sup>. Baina behin Saddam Irakeko presidentea zela, Irak beste estatuekin gatazketan sartu

---

<sup>41</sup> United Nations Security Council, *Security Council Resolution 678*, November 29, 1990, ch. VII, puntu 2.

<sup>42</sup> ALBA-CUÉLLAR, A.: "Irak y Occidente en el siglo XX: La historia de una relación estratégica y tumultuosa", *Revista Análisis Internacional*, 4, 2011, 111-130 orr., 125 orr.

<sup>43</sup> GRUPO DE INVESTIGACIÓN EN ECONOMÍA POLÍTICA. op. cit. 50 orr.

<sup>44</sup> ALBA-CUÉLLAR, A. op. cit. 126 orr.

<sup>45</sup> GRUPO DE INVESTIGACIÓN EN ECONOMÍA POLÍTICA. op. cit. 58 orr.

<sup>46</sup> PATRON, R op. cit. 471 orr.

<sup>47</sup> BRODIE, N.: "The Market Background to the April 2003 Plunder of the Iraq National Museum", in STONE, P, G. (ed.) eta BAJJALY, J, F. (ed.): *The Destruction of Cultural Heritage in Iraq*. Woodbridge, Boydell & Brewer Ltdd, 2008, 41-54 orr., 41 orr.

<sup>48</sup> BERNHARDSSON, M. T.: *Reclaiming a plundered past: Archaeology and Nation Building in Modern Iraq*, Austin, University of Texas Press, 2005.; et al. in BRODIE, N. 2008. op. cit. 41 orr.



zenean, irakiar ondarea gerra harrapakina bihurtu zen. Halatan, Golkoko gerran, Irakeko arkeologia-haztarnategietako arpilatzeak eta museoetako lapurretak ohikoak izan ziren 1991tik aurrera<sup>49</sup>.

Irakeko antigoalen harrapaketa eragile zuzena komunitate internazionalak sorturiko presio ekonomikoa izan zen. Lehen aipatu dugun bezala, gerrak zabalduetako tentsio internazionala gestionatzeko, Nazio Batuek bahimenduak ezarri zizkion Irakeko truke eta ekonomiari. Hortaz, Nazio Batuen Erakundeak 661. Ebazpena ebatzi zuenean Irakeko ekonomia kolapsatu egin zen<sup>50</sup>. Horrela, diru sarreren faltaren ondorioz Antigoalen Departamentuak langileria eta azpiegitura falta sumatu zuen eremu arkeologikoak babesteko<sup>51</sup>. Izan ere, Amy Miller-ek dio merkatu internazionala antigoalez hornitzen dituzten jatorri nazio gehienek zailtasun ekonomikoak izaten dituztela, eta eskasiari aurre egiteko, biztanleriak berak ondarearen trafikoa ilegalean parte hartzen duela<sup>52</sup>. Iraken kasuan, Nazio Batuen bahimenduek ondarearen arpilaketa eta kontrabandoa iraunarazi zuten. Orobat, jazarpen militar eta krisi ekonomikoaren ondorioz, Irakeko estatua ez zen gai izan legez kanpoko aktibitateak oztotatzeko. Gerrak lurraldeko mugak ahuldu zituen eta milaka irakiar antigoal estatutik kanpoko salerosketetan agertzen hasi ziren. Hau posible izan zen ondare kulturala mugiarazteko ibilbideak eta sare ilegalak antolatu zirelako<sup>53</sup>, bai estatu barnean zein kanpoan.

Honenbestez, kontuan izanik irakiar antigoalen arpilatzea eta mugikortasun internazionala Golkoko gerraostean oinarritu zirela, susmagarria da Schoyen Bildumako 654 kaikuak 1995ean ezagutarazi izana lehen aldiz. Seguruenik, urte horretan bertan izango ziren inportatuak Erresuma Batura. Beraz, ziurrena litzateke kaiku magiko horiek Golkoko gerra testuinguruan autoritateen ezagupen ezean induskatuak eta esportatuak izatea.

Badakigu sortu ziren garaian, aramear kaiku magikoak lurperatuak izaten zirela, hortaz lehenik induskatuak izan behar izan ziren gero mugikortasuna gauzatzeko. Halere, Schoyen Bildumako kaikuen indusketa lur eremu zehatzak ez dira ezagutzen<sup>54</sup>. Dena dela, kaiku magikoak orokorrean Irakeko zentro hegoaldean induskatuak izango zirela uste da, bereziki

---

<sup>49</sup> BRODIE, N. 2014. op. cit. 10 orr.

<sup>50</sup> BRODIE, N. 2008. op. cit. 41 orr.

<sup>51</sup> LAWER, A.: "Destruction in Mesopotamia", *Science*, 293(5527), 2001, 32-35 orr.; et al. in BRODIE, N. 2008. op. cit. 41 orr.

<sup>52</sup> REICH, H.: "Treasures Easy Pickings". *Chicago Tribune*, 2003.04.28. in MILLER, A. op. cit. 59 orr.

<sup>53</sup> BORKE, K.: "Searching for a Solution: An Analysis of the Legislative Response to the Iraqi Antiquities Crisis of 2003", *DePaul Journal of Art, Technology & Intellectual Property Law*, 13(2), 2003, 381-452 orr., 389 orr.

<sup>54</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 8 orr.

Najaf zonaldean. Alde batetik, NRK dokumentalarekin lan egin zuen David Hebditch telebista ekoizle independenteak aditzera eraman zuen 1992an Irakeko zentro hegoaldean, Najaf zonaldean hain zuzen, harrapaketa handiak izan zirela<sup>55</sup>. Bestalde, dokumentalak izendatu gabeko irakiar arkeologo baten testigantza hartu zuen, honen arabera kaikuak Najaf zonaldean izan ziren arpilatuak eta ondoren errepidetik Ammanera eraman ziren, azkenik Londresera helduz<sup>56</sup>. Testigantza honen ondorioz, kaikuak Jordaniatik pasatu baziren, 1988a baino beranduago izan zen. Halere, ez da argi geratzen zein izan zen ekintza hauen egile nagusia. Baina, Hebditchen arabera “eskala handiko operazioa” izan zen kaiku hauen indusketa eta garraioa<sup>57</sup>. Bere ustetan, ziurrenik Ghassan Rihani bildumagileak antolaturiko operazioa izan zen, eta Irakeko Baath partiduko zenbait goi karguek parte hartu zuten<sup>58</sup>. Beraz, ziurrenik Schoyen Bildumako kaiku magikoen arpilatzea eta garraioa lan profesionala izango zen, Iraketik kanpo antolatua. Argi geratzen ez dena da, jordaniar edo norvegiar bildumagileek banaka jardun bazuten operazioaren antolakuntzan, edota biak delituaren konplizeak izan baziren. Dena den, aramear kaiku hauek Jordaniatik pasatu izana ere ez da zerbait guztiz baieztatu daitekeena baina probableena izango litzateke. Izan ere, artefaktu gehienak, behin jatorrizko lurraldetik irten ostean, estatu ezberdinetatik pasatzen dira nazio merkatu zehatz batean finkatu arte. Iraken kasurako, izan ditzakeen trantsitu nazio batzuk Iran, Siria, Turkia<sup>59</sup>, Saudi Arabia, Kuwait eta Jordania<sup>60</sup> dira. Beraz, Schoyen Bildumako kaiku magikoen trafikoa ilegalak Iraketik Jordaniara eta Jordaniatik Erresuma Baturako mugikortasunean finkagarria litzateke.

---

<sup>55</sup> Ibid. 19 orr.

<sup>56</sup> LUNDÉN, S.: “TV Review: NRK (Norway) Skriftsamleren [The Manuscript Collector]”, *Cultural Without Context*, 16, 2005, 3-11 orr. et alia. in BRODIE, N. 2014. op. cit. 10 orr.

<sup>57</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 19 orr.

<sup>58</sup> Ibid.

<sup>59</sup> BRODIE, N.: “Focus on Iraq: Spoils of War [The plundering of Iraq's cultural institutions demonstrates yet again how warfare fuels the global trade in looted antiquities]” *Archaeology*, 56(4), 2003, 16-19 orr. in BORKE, K. op. cit. 389 orr.

<sup>60</sup> PATRON, R. op. cit. 471 orr.

### 3. Aramear kaiku magikoen menpeko legedia Golkoko gerran

Irakiar kaikuen indusketa eta mugikortasun transnazionalaren zilegitasuna legez definituta zegoen Golkoko gerran. Lehenik eta behin, Irakeko estatuak bere antigoalen jabetza bermatzen zuen. Hau da, irakiar antigoalen legeek Irakeko gobernuari aitortzen zion kaiku magikoen jabegoa. Gainera, ezkutuko indusketa eta esportazioak debekatuta zeuden. Baina bestalde, behin kaikuak estatutik irteterakoan, komunitate internazionalak esportazio eta inportazio legeetan eskuhartu zuen. Beraz, Golkoko gerra abiapuntutzat hartuta, irakiar kaikuek Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak, Erresuma Batuak eginiko inplementazioa eta UNESCOren 1970eko kobentzioaren arauak lituzke beregain. Legedi internazional hauek, Irakeko estatuak kaikuegan zeukan legedia babestu edo aldi berean kolokan jarri zezakeen. Izan ere dokumentazio gabeko antigoalak jatorrizko naziotik beste lurralde batera inportatzen direnean, praktikan jatorrizko lege nazionalen efektua galdu dezakete, merkatu nazioaren lege desberdinen menpean daudelako. Hortaz, komunitate internazionalak ezarri ditzakeen legediak izaera nahiko kontrajarriak izan ditzakete.

Dena dela, hurrengo atalean ikusiko dugu irakiar lege nazionalen arabera Schoyen Bildumako kaikuen indusketa eta esportazioa legez kanpokoak izan zirela. Lege hauen arabera, arpilatzea eta kontrabandoa eman izango litzateke. Halere, lege internazionalen ezaugarrien eraginez, ikusiko dugu behin kaikuak Londresen izanik, gertakizunen ilegalitatea leundua izan zitekeela.

#### 3.1. Irakiar antigoalen lege nazionalak

Irakiar ondarearen legezko egituraketa Britaniar Agintaldian finkatu zen. Garai honetatik aurrera irakiar antigoalek izaera eta jabetza nazionala izan dute. Orduantxe sustatu zuen lehen aipaturiko Gertrude Bell arkeologoak *1924ko Antigoalen Legea*<sup>61</sup>. Baina lege ingeles hau, Irakeko independentziaren ondoren, Haxemi Erresumako *1936ko 59. Antigoalen Legea* indarrean sartu zenean baliogabetu egin zen<sup>62</sup>. Esan dezakegu, 1936ko lege hau XX. mendeko irakiar ondarearen legediaren bihotza dela. Hainbestez, Irakeko Errepublikan Baath partiduak *1974ko 120. Legea* eta *1975eko 164. Legea* bultzatu zituen *1936ko 59. Antigoalen Legea*

---

<sup>61</sup> DAVIS, T. op. cit. 454 orr.

<sup>62</sup> Ibid.

moldatzeko. Hau da, azken hau ez zen ezabatua izan baizik eta alderdiak sortutako lege berrien bidez aldaketa garrantzitsuak egin zitzaizkion. Beraz, mende amaierako irakiar ondarearen joan etorriak arautzen zituenen *1974ko 120. Legeak* eta *1975eko 164. Legeak aldatutako 1936ko 59. Antigoalen Legea* zen.

Irak baazistaren lege honen arabera, antigoalak gizakiak eginiko gutxieneko berrehun urteko gauza mugigarri edo ez mugigarriak ziren<sup>63</sup>. Gure kasuan beraz aramear kaikuak antigoal mugigarriak dira. Kontuan izanik kaikuen lehen argitaratze data 90. hamarkada izan zela, Schoyen Bildumara heldutako 654 kaikuen jabetza, indusketa eta mugimendu tranazionalaren legalitatea aztertzeko *1974ko 120. Legeak* eta *1975eko 164. Legeak aldatutako 1936ko 59. Antigoalen Legea* landu behar da. Lege honen 3. artikulua dio irakiar ondare kulturala estatuaren propietatea zela: “Orain Irakeko lurrazalaren gainean edo azpian dauden antigoal guztiak, bai mugigarri zein ez mugigarriak, estatuaren jabetza komuna dira”<sup>64</sup>. Baieztapen honek adierazten digu irakiar ondarea bai Golkoko gerra bitartean zein ostean Irakeko jabetza nazionala zela.

Orobat, antigoalen izaera nazional hau bazegoen jada Mesopotamiako Britainiar Agintalditik, *1924ko Antigoalen Legea* zenak enuntziatu antzerakoa baitzeukan<sup>65</sup>. Honenbestez, irakiar antigoalen jabe eta antolatzailea Irakeko estatua izan zen bere sorreratik. Adibidez, jada 1936tik Golkoko gerraraino irakiar landa eremu bat pribatua izango balitz ere bere jabeak ez luke bertan indusketarik antolatzeko ahalmena izango ezta bertan aurkitutako antigoalak erreklamatzeko<sup>66</sup>. Hau da, indusketa arkeologikoak Irakeko gobernuak bakarrik egitaratu zitezkeen bai Haxemi Erresuman zein Irak baazistan<sup>67</sup>. Bestalde, inork antigoalen bat aurkitu ezker derrigortuta egongo litzateke Antigoalen Departamentuan berri emateko<sup>68</sup>. Ondorioz, aditzera ematen digu Irak independentean antigoal ororen erregistro bat eramaten zela.

Halatan ikusi dugu irakiar ondare kulturalaren jabea Irakeko estatua zela. Halere, bai Haxemi Erresumako zein Baath partiduak moldatutako legeetan bazeuden ondarearen jabetza pribaturako salbuespen gutxi batzuk. Baina dena dela justu kaiku magikoak ez ziren kategoria

---

<sup>63</sup> Republic of Iraq, *Antiquity Law No. 59 of 1936, as amended by Law No. 120 of 1974 and Law No. 164 of 1975*. ch. I, art. 1 (e).

<sup>64</sup> *Ibid.* ch. I, art. 3.

<sup>65</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 78 orr.

<sup>66</sup> 1936 Law. op. cit. ch. I, art. 4. eta ch. V, art. 40.

<sup>67</sup> *Ibid.* ch. V, art. 40.

<sup>68</sup> *Ibid.* ch. III, art. 19.

pribatu honetan sartzan, estatuaren ondasuna baitziren<sup>69</sup>. Alabaina, jabetza pribatu horren askatasuna oso mugatua zen, salbuespen honek ardura eta betebeharrak zekarrelako.

Osterantzean, jabetza pribaturako lege horiek modu oso ezberdinean erabili izan ziren monarkian zein errepublikan. Adibidez 1936ko 59. *Antigoalen Legea* indarrean zegoenean, Haxemi Erresuman antigoalen komertzioa eta esportazioa salbuespenekin onartzen zen. Instituzioetan erregistratuta izango ziren jabetza pribatudun antigoalak hortaz, Iraketik kanpo mugituak eta salerosiak izan ahalko ziren Antigoalen Departamentuko zuzendari eta ministroak baiezkoa emango balu. Baina 1936ko 59. *Antigoalen Legea* barnean zehazten ziren salbuespen hauek, konkretuki 27. 28. eta 39. artikuluetan zetozenak, ezabatuak izan ziren Errepublikan, Baath partiduak 1974ko 120. *Antigoalen Legea* indarrean sartu zuenean. Aldaketa honen ondorioz, jabetza pribatuaren salbuespenak mantendu egin ziren baina antigoalen izaera nazionala aldi berean gogortu egin zen. Hau da, komertzioa helburu zuten antigoalen mugikortasuna debekaturik geratu zen eta esportazioa autoritateek bideratutako hezkuntza helburuetarako bakarrik eman zitekeen. Horrela, 1936ko 26. artikuluen testua beste honengatik aldatu zen 1974ko legearen bidez: “Debekatuta dago edozein antigoal Iraketik kanpo eramatea. Zuzendaritzak bakarrik luke posible hori egitea ikerketa zientifikoetarako, trukerako eta erakusketetarako”<sup>70</sup>. Beraz, Golkoko gerrarako salerosketara bideratutako irakiar antigoalen esportazioa debekatuta zegoen.

Honenbestez, Baath partiduak eginiko moldaketa hauek funtsezkoak dira Schoyen eta UCLk bere burua garbitzeko erabili zuten argudioa ulertzeko. Esan dugun bezala, Martin Schoyenek zioena zen berak eskuraturiko kaiku magikoak Jordaniako Rihani familiaren bilduman izan zirela jada 60. hamarkadatik aurrera. Baina UCLren ikerketa batzordeak ez du 1936ko legearen arabera, bilduma batean lirakeen aramear kaikuen erregistrorik aurkitu<sup>71</sup>. Gehitzeko, Donny George, une horretako Irakeko Antigoal eta Ondarearen Batzordeko presidentea ez zeukan 1936ko legearen ondoren legalki emandako kaikuen esportazioen ebidentziarik<sup>72</sup>. Gainera, Schoyenek Rihani familiarekin izan zituen kaikuen ustezko salerosketaren dokumentuak aurkeztu zituenean komitea ez zen konbentziturik geratu<sup>73</sup>. Litekeena da kaikuen esportazio eta jabetza aldaketa baieztatzen zuten dokumentu horiek faltsuak izatea.

---

<sup>69</sup> Ibid. ch. III, art. 16 (1) (2).

<sup>70</sup> Ibid. ch. III, art. 26.

<sup>71</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 77 orr.

<sup>72</sup> Ibid.

<sup>73</sup> BALTER, M. op. cit. 555 orr.

Hortaz, ezin dugu esan ziurtasunez kaikuak Jordaniatik igaro zirela, baina bai ikus daiteke kaikuen esportazio data aurreratzea estrategia bat izan zitekeela Baath partiduak ezarritako lege gogorrangoengatik ihes egiteko. Izan ere, *1974ko 120. Legea* eta *1975eko 164. Legea*, aurretiazko *1936ko 59. Antigoalen Lege* honen hutsuneak konpontzeko ebatzi ziren. Hau da, *1974ko 120. Legeak* eta *1975eko 164. Legeak aldatutako 1936ko 59. Antigoalen Lege* honen hitzaurreak dioenez, 1936ko legeak jabetza pribatudun artefaktuen salerosketa eta esportazioa ahaldu zuenetik, erregistratu gabeko antigoalen trafikoa ilegalak nabaria izan zen<sup>74</sup>. Hortaz, 1936ko legea Baath partiduaren eskutik moldatu zen lege beraren hutsuneak ekiditeko<sup>75</sup>. Hala eta guztiz ere, kaikuak 1936ko legearen arabera estatuaren jabetza ziren eta ez ziren antigoalen salbuespen pribatuan sartzen. Baina demagun Schoyenen esku ziren kaikuen jabetzaren interpretazioa okerra izan zela 1960a aurretik, eta jabetza pribatuaren arabera justifikatu zela komertzializazioa eta esportazioa. Horrela izanda ere, kaikuak jabetza pribatu bezala ulertuko baziren, mugikortasuna bideratzeko erregistratuta egon beharko ziren eta komertziorako baimenak behar izango zituzten. Dakigula, 654 kaiku horiek ez ziren inon erregistratuak izan eta ez zituzten komertzioa zein esportazioa baimentzen zuten dokumentaziorik jaso. Beraz, ekintzen ilegalitatea salba ezina litzateke *1936ko Antigoalen 59. Legea* bakarrik erabili beharko bagenuke ere.

Honenbestez, ondorioztatu daitekeena da, probableena litzatekeela kaikuak Golkoko gerraren inguruan induskatuak izana, ez baitago 1995a baino lehenagoko erregistrorik. Gainera, argi dago antigoal ororen jabea Irakeko estatua zela jada Mesopotamiako Britainiar Agintalditik, eta indusketa eta esportazio klandestinoak ilegalak zirela monarkiako zein errepublikako irakiar legeen arabera. Hortaz, nahiz eta egia izan kaikuak 60. hamarkada bitartean Jordanian zeudela, UCLren ikerketaren ondorioen arabera ere, *1936ko 59. Antigoalen Legea* nahikoa izango litzateke kaikuen jabea Irakeko estatua zela baieztatzeko<sup>76</sup>. Orobat, Schoyenek jordaniar bildumagilearekin eginiko tratua benetakoa balitz ere, ikerketa batzordeak baieztatu zuen Jordaniako legeek ez zutelako irakiar jabetza baliogabetuko, hauek Irakeko legearen menpe izango liratekeelako<sup>77</sup>.

---

<sup>74</sup> 1936 Law. op. cit. Preamble.

<sup>75</sup> Ibid. Preamble.

<sup>76</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 27 orr.

<sup>77</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 28 orr.

### 3.2. Ondarearen legedi internazionalak

Golkoko gerra bitartean Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 661. Ebazpena atera zuen 1990ean. Hain zuzen, 661. Ebazpenak irakiar antigoalen mugikortasuna debekatzen zuen. Bahimenduak luzatzen joan zirenez 2003an Nazio Batuek 1483. Ebazpena atera zuten ostera. Ondoren, azken bahimendu hau gogortzeko Erresuma Batuko Estatutu Tresnak 2003ko 1519. Ordena sortu zuen<sup>78</sup>. Azkenik, Golkoko gerra baino lehenago, Nazio Batuen Batzar Nagusiak eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak sustaturiko *UNESCOren 1970eko Kultura Ondasunen Legez Kanpoko Inportazioa, Esportazioa eta Jabego Transferentzia Debekatzeko eta Saihesteko Konbentzioa* ere erabakigarria da kaikuen trafikoaren zilegitasun eza frogatzeko.

Lehenik eta behin, Nazio Batuen Erakundearen fundatzaileetarikoak izan ziren bai Irak, Erresuma Batua zein Jordania. Beraz, erakundearen partaideak Golkoko gerran sorturiko Nazio Batuen ebazpenen baldintzak betetzera derrigortuta zeuden. Bahimenduen eskuhartzea oso kontrajarria izan zen Golkoko gerran. Izan ere, alde batetik blokeoak errekurtsioen eskasia ekarri zuen eta honek irakiar ondarearen arpilatze masiboak sortu zituen, baina bestalde, bahimenduen helburua internazionalki Irakeko tratu komertzialak etetea eta hortaz antigoalen trafiko ilegala debekatea izan zen. Halatan, irakiar antigoalen mugikortasun ilegala oztopatzeko legeak mantendu eta berritu egin ziren Golkoko gerra bukatu eta urteak igaro ahala. 1990ean Nazio Batuek 661. Ebazpena atera zuten zeinak data horretatik aurrera Iraketik esportatuak ziren edozein produkturen inportazioak debekatzen zituen<sup>79</sup>. Orobat, irakiar ondasunekin salerosketak bideratzea ere debekatua izan zen<sup>80</sup>. Bestaldetik, 2003ko maiatzaren 22an Nazio Batuek 1483. Ebazpena sortu zuten eta hau Erresuma Batuan Estatutu Tresnaren 1519. Ordenagatik inplementatu zen<sup>81</sup>. Ordena honetan antigoalen mugikortasunaren debekuak berdinak izaten jarraitu zuten, baina trataera ezberdinekin. Ordenaren 8. artikuluan hitz egiten da ondarearen inguruko erantzukizunez. Alde batetik, 2003. urteko ordenaren arabera inork jatorri ilegaleko irakiar ondare kulturalen bat bere esku izango balu, aguazilarengana eraman beharko luke<sup>82</sup>. Hau honela, 2004ko urrian UCLren ikerketa batzordea abiatu zenean, unibertsitateak berak baieztatu zuen bere garaian kaikuak gordailuan izanik abisu eman ziola poliziar<sup>83</sup>. Halere, gertaera hau ikerketa horretan ez denez

<sup>78</sup> BRODIE, N. 2008. op. cit. 43 orr.

<sup>79</sup> UNSCR 661. op. cit. puntu. 3 (a).

<sup>80</sup> UNSCR 661. op. cit. puntu. 3 (b).

<sup>81</sup> BRODIE, N. 2008. op. cit. 43 orr.

<sup>82</sup> United Kingdom Statutory Instrument, *Statutory Instrument Order 2003 No. 1519* (Iraq United Nations Sanctions Amendment), June 12, 2003. puntu. 8 (2).

<sup>83</sup> BRODIE, N. 2014. op. cit. 10 orr.

sakontasunean lantzen, ez da argi geratzen zer nolatan ez zen beste inolako erantzunbeharririk eskatu. Bestalde, ordenaren beste atal garrantzitsu batek dio antigoalen trafiko ilegalean parte hartzen zutenak ez baziren ekintzaren legez kanpotasunaren jakitun, ez zirela erruduntzat emango<sup>84</sup>. Hau da, ezin baliteke frogatu delituaren partaideak legaltasunaren ezaren jakinean jardun zutela, ez lirateke erruduntzat hartuko. Hortaz, ikus dezakegu ebazpen honek hutsegite legalak sustatu ditzakeela, erruduntasuna ezin frogatu izateak ez baitu esan nahi akusatuek ez zekitela delitu bat egiten zeudenik. Izan ere, UCLren ikerketaren ondorioetan ebatzi zen, kaikuen salerosketa dokumentazio falta zela eta, ezin izan zela zehaztu Martin Schoyen edo unibertsitateko Shaul Shaked eta Mark Geller bezalako adituak kaikuen legez kontrako jabetzaren jakitun baziren edo ez<sup>85</sup>. Azken puntu honen ondorioz, Martin Schoyen zein Londreseko College Unibertsitatea erruduntasunetik salbuetsita geratu ziren.

Amaitzeko, UNESCOren programa bat daukagu: *1970eko Kultura Ondasunen Legez Kanpoko Inportazioa, Esportazioa eta Jabego Transferentzia Debekatzeko eta Saihesteko Konbentzioa*. Hitzarmen honek ondare kulturala komertzio internazionalaren testuinguruan babesteko printzipio eta betebeharrak biltzen ditu. Baina akordio internazional honen atxikitzea estatuen borondatez gauzatzen denez, konbentzioaren parte diren estatuek izango dute soilik hitzarmenaren legedia eta ardurak betetzeko derrigortasuna. Irak adibidez 1973an batu zen UNESCOren konbentzio honetara, baina Erresuma Batua Golkoko gerra baino beranduago egin zen partaide, 2002an. Aramear kaikuei dagokienez, konbentzioaren 11. artikulua adibidez oinarri bat ematen digu gerra testuinguruko antigoalen mugikortasun ilegala azpimarratzeko: “legez kanpokoak dira atzerriko potentzia baten inbasioaren ondorioz herrialde okupatuak indarrez jasaten dituen ondasun kulturalen jabetza aldaketa eta esportazioa”<sup>86</sup>. Gainera, hitzarmenaren arabera ulertuko litzateke artefaktuen jatorrizko nazioaren legeek zehazten dutela ondareak jasaten dituen ekintzen izaera legala<sup>87</sup>. Bestalde, 6. artikulua dio edozein ondare internazionalki mugiarazteko, honek esportazio agiriak behar dituela<sup>88</sup>. Hortaz, UNESCOren konbentzioaren arabera ere kaiku magikoen esportazioa ilegala lirateke eta orobat gerraren ondorio zuzena. Gainera, Irak Golkoko gerra garairako

---

<sup>84</sup> SI 2003 No. 1519. op. cit. art. 8 (3).

<sup>85</sup> FREEMAN, D. J. C. et alia. op. cit. 40 orr.

<sup>86</sup> United Nations Educational, Scientific, and Cultural Organization, *Convention on the Means of Prohibiting and Preventing the Illicit Import, Export and Transfer of Ownership of Cultural Property*, November 14, 1970, art. 11.

<sup>87</sup> Ibid. art. 3. eta art. 7 (a).

<sup>88</sup> Ibid. art. 6. (a) eta (b).



konbentzioaren parte zenez, nahikoa izan beharko litzateke bere antigoalen mugikortasun ilegala oztopatzeko.

Baina honi gehituta ere, 1970eko UNESCOren hitzarmen honek arazo handi bat aurkezten du Erresuma Batuaren partaidetzari dagokionez. Teorian, behin nazio bat *1970eko Kultura Ondasunen Legez Kanpoko Inportazioa, Esportazioa eta Jabego Transferentzia Debekatzeko eta Saihesteko Konbentzio* honen parte egiten denean, ondarearekin zerikusia dituzten delituak konbentzioa beraren sortze datatik jazartzen dira eta ez partaide berriaren sinadura egunetik<sup>89</sup>. Hau da, delituaren zigorra 1970tik aurrerako jabetza ilegaletatik abiatzen da. Hala, behin Erresuma Batuak 2002an UNESCOren 1970eko konbentzioa sinatu zuela, berez kaikuek jasandako jabetza aldaketa eta mugikortasuna zigorgarriak izango ziren hauek jada 90. hamarkadan lurralde britaniarrean zeudelako. Aitzitik, Erresuma Batuak aipaturiko konbentzioa 2002an sinatu zuenean honek britaniar legearen arabera ez zeukan atzerako perspektibarik, hau da, 2002. urtea hartzen du delituak aplikatzen hasteko datatzat<sup>90</sup>. Honenbestez, Erresuma Batuak legez kanpoko inportazio bezala jaso zituen kaiku magikoen jabetza ez zen kondenatua izan UNESCOren konbentzioaren arabera.

---

<sup>89</sup> Ibid. art. 7.

<sup>90</sup> BRODIE, N. 2014. op. cit. 10 orr.

#### 4. Ondorioak

Aztertutakoaren arabera, Londreseko Schoyen Bilduman aurkitzen diren aramear kaiku magikoak legez kanpoko jatorria duten irakiar antigoalak dira.

Kaiku hauek, probabilitatearen arabera, Golkoko gerra bitarte edo ostean izango ziren klandestinoki induskatuak. Izan ere, gerrako presio internazionalak irakiar ondarearen kalteberetasunerako testuingurua sortu zuen. Ondoren, Iraketik lizentziarik gabe esportatuak izango ziren eta ziurrenik Jordaniatik pasa izango ziren Erresuma Batura heldu baino lehenago. Baina kaiku magiko hauen mugikortasun internazionala ilegala izan zen Irakeko lege nazional eta lege internazionalen arabera. Dena dela, kaikuak dokumentaziorik gabe mugituak izan zirenez honek legeen hutsegite asko ekar ditzake. Izan ere, kaikuek jabetza nazionaleko izaera izan arren, behin jatorrizko naziotik irteterakoan, praktikan lege nazionalek ahalmena galdu dezakete. Hau da, kaikuek lurralde ezberdinetako transakzio ugari jasan zituztenez, mugikortasunaren ilegalitatea zurituz joan zela esan genezake, beste estatuen legeen menpean izanik. Hainbestez, lege britaniarrek adibidez aramear kaikuen Erresuma Baturako inportazioa ahalbidetu zuten. Hortaz, ezingo litzateke legalki guztiz baieztatu gaur egungo kaikuen Erresuma Batuko jabetza ilegala denik.

Bestalde, kontuan izanik kaikuak 654 direla, artefaktuen halako mugikortasun zabal bat ezkutuan bideratzeko, begibistakoena da azpiegitura eta sistema antolatuak behar izango zirela. Hortaz, probablea litzateke kaikuen arpilatzea eta kontrabandoa lan profesionala izatea. Orobat, bai Schoyen zein UCL garrantzizko instituzio akademikoak dira eta zentzu batean Erresuma Batuaren hezkuntza ordezkariak ere bai. Beraz, ez da sinesgarria pentsatzea bai bilduma zein unibertsitatea ez zirela kaikuen legez kanpoko jatorriaren jakitun NRK dokumentalaren salaketa baino lehenago. Bestalde, jakinik Erresuma Batuak ez duela aramear kaiku magiko hauek Irakera itzultzeko prozesurik hasi, agerian usten du laguntza akademikoaz gain, merkatu nazio honen delituaren estatu mailako konplizitatea.

Esan genezake beraz, Irakeko kolonia ohia, irakiar antigoalak biltzen dituen krimen transnasionalean nahasita legokeela.

## BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRIAK

### 1. Dokumentu instituzionalak eta legeak

- FREEMAN, D. J. C., MACDONALD, S. eta RENFREW, C.: *An Inquiry into the Provenance of 654 Aramaic Incantation Bowls Delivered into the Possession of UCL by, or on the Instruction of, Mr Martin Schøyen*. House of Lords Library, London, United Kingdom, 2006.

Testua online: <https://wikileaks.cash/schoyen-ucl-inquiry.pdf>

- United Nations, *Charter of the United Nations*, October 24, 1945.

- Republic of Iraq, *Antiquity Law No. 59 of 1936, as amended by Law No. 120 of 1974 and Law No. 164 of 1975*.

- United Nations Security Council, *Security Council Resolution 660*, August 2, 1990

- United Nations Security Council, *Security Council Resolution 661*, August 6, 1990.

- United Nations Security Council, *Security Council Resolution 678*, November 29, 1990.

- United Kingdom Statutory Instrument, *Statutory Instrument Order 2003 No. 1519* (Iraq United Nations Sanctions Amendment), June 12, 2003.

- United Nations Educational, Scientific, and Cultural Organization, *Convention on the Means of Prohibiting and Preventing the Illicit Import, Export and Transfer of Ownership of Cultural Property*, November 14, 1970.

## 2. Bibliografia

- ALBA-CUÉLLAR, A.: “Irak y Occidente en el siglo XX: La historia de una relación estratégica y tumultuosa”, *Revista Análisis Internacional*, 4, 2011, 111-130 orr.
- BALTER, M.: “University Suppresses Report on Provenance of Iraqi Antiquities”, *Science*, 318(5850), 2007, 554-555 orr.
- BORKE, K.: “Searching for a Solution: An Analysis of the Legislative Response to the Iraqi Antiquities Crisis of 2003”, *DePaul Journal of Art, Technology & Intellectual Property Law*, 13(2), 2003, 381-452 orr.
- BRODIE, N.: “The Market Background to the April 2003 Plunder of the Iraq National Museum”, in STONE, P, G. (ed.) eta BAJJALY, J, F. (ed.): *The Destruction of Cultural Heritage in Iraq*. Woodbridge, Boydell & Brewer Ltd, 2008, 41-54 orr.
- BRODIE, N.: “Scholarship and insurgency? The study and trade of Iraqi antiquities”, in AA.BB.: *Illicit Traffic of Cultural Objects: Law, Ethics, and the Realities*. Perth: University of Western Australia, An Institute of Advanced Studies Workshop, 2011.  
Berreskuratua:  
<https://traffickingculture.org/publications/brodie-neil-2011-scholarship-and-insurgency-the-study-and-trade-of-iraqi-antiquities-in-illicit-traffic-of-cultural-objects-law-ethics-and-the-realities-an-institute-of-advanced-studies-works/>  
(2021.06.04ean kontsultatua)
- BRODIE, N.: “Aramaic Incantation Bowls in War and in Peace”, *The Journal of Art Crime*, 11, 2014, 9-14 orr.
- CAMPBELL, P.: “The Illicit Antiquities Trade as a Transnational Criminal Network: Characterizing and Anticipating Trafficking of Cultural Heritage”, *International Cultural Property Society*, 20, 2013, 113-153 orr.

- DAVIS, T.: “From Babylon to Baghdad: Cultural Heritage and Constitutional Law in the Republic of Iraq”, *International Journal of Cultural Property*, 21, 2014, 445– 463 orr.
  
- GAWRON, L.: *An Examination of the 2003 Looting of the Iraq National Museum: How the Protection of Iraq's Cultural Property was Overlooked*. Seton Hall University, Seton Hall Dissertations and Theses, 2010.  
 Testua online: <https://scholarship.shu.edu/dissertations/515>  
 (2021.05.31an kotsultatua)
  
- GRUPO DE INVESTIGACIÓN EN ECONOMÍA POLÍTICA.: “Lo que hay tras la guerra de Irak: los datos básicos” in AA.BB: *La Segunda Guerra del Golfo: Irak, 2003*. Barcelona, Hacer Editorial, 2004, 29-63 orr.
  
- ISAKHAN, B.: “Heritage Destruction and Spikes in Violence: The Case of Iraq”, in KILA, J. D. (ed.) eta ZEIDLER, J. A. (ed.): *Cultural Heritage in the Crosshairs [Protecting Cultural Property during Conflict]*. Leiden eta Boston, BRILL, 2013, 219-247 orr.
  
- MEHARRY, E.: “The Making of Iraq’s Antiquity Law and the National Museum”, in JACKSON, M. (ed.) eta PARKIN, A. (ed.): *The extraordinary Gertrude Bell*. City of Newcastle, Tyne Bridge Publishing, 2015, 29-31 orr.
  
- MILLER, A.: “ Looting of Iraqi Art: Occupiers and Collectors Turn away Leisurely from the Disaster”, *Case Western Reserve Journal of Interationa Law*, 37(1), 2005, 49-84 orr.
  
- PATRON, R.: “The looting of iraqi archaeological sites: Global implications and support for an international approach to regulating the antiquities market”, *The George Washington International Law Review*, 40, 2008, 465-496 orr.
  
- TIJHUIS, A. J. G.: *Transnational crime and the interface between legal and illegal actors. The case of the illicit art and antiquities trade*. Universiteit Leiden, Wolf Legal Publishers, 2006.  
 Testua online: <https://scholarlypublications.universiteitleiden.nl/handle/1887/4551>

(2021.05.31an kontsultatua)

- WALTER TUBB, K.: “Extreme or Commonplace: The Collecting of Unprovenanced Antiquities”, in WERE, G. (ed.) eta KING, J. C. H. (ed.): *Extreme Collecting: [Challenging Practices for 21st Century Museums]*. New York, Berghahn Books, 2012, 57-74 orr.

### 3. Webgrafia

- Martin Schoyen Bilduma. “The Schoyen Collection”.

Webgunean: <https://www.schoyencollection.com/>

### 4. Irudiak (agerpen ordenaren arabera)

- Londreseko Schoyen Bildumako 1911/1 kaikua.

Webgunean:

<https://www.schoyencollection.com/palaeography-collection-introduction/aramaic-hebrew-syriac/4-6-3-jewish-aramaic/ms-1911-1>

- Londreseko Schoyen Bildumako 2053/196 kaikua.

Webgunean:

<https://www.schoyencollection.com/magical-literature-introduction/asian-african-american-magical/incantation-bowl-ms-2053-196>

- Londreseko Schoyen Bildumako 2053/198 kaikua.

Webgunean:

<https://www.schoyencollection.com/magical-literature-introduction/asian-african-american-magical/incantation-bowl-ms-2053-198>

- Londreseko Schoyen Bildumako 1928/19 kaikua.

Webgunean:

<https://www.schoyencollection.com/23-religions/living-religions/23-14-zoroastrianism/incantations-angra-mainu-ms-1928-19>